

KONTROL MOZIOA

HIRIKO GOI-TENTSIOKO DORREEN INGURUKOA

Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko uztailaren 14an Garapen eta Lurralde Planifikaziorako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Batzordean azaldu genuen bezala, Aiete auzoan Axular ikastolaren alboan goi-tentsioko bi dorre daude. Bata egurrezko oholez babestuta dago eta, hortaz, ezin da dorrera igo; bestea berriz, ikastolaren goiko aldean (Mantulene kalean) dagoena, ez dago inolaz ere babestuta. Erraz heldu daiteke bertara eta edonor igo liteke dorrean gora.

Azkenaldian bi istripu larri izan dira goi-tentsioko dorreetan gure inguruan; bata martxoan Usurbilen, bestea apirilean Gasteizen. Biek ondorio latzak izan zituzten.

Batzordean gaia landu genuenean zinegotzi ordezkariak azaldu zuen gai hau 2009 urtetik mahai gainean dagoela, baina hainbat zailtasun daudela hirian mota ezberdinetako dorre ugari daudelako, batzuk lur publikoetan eta besteak lursail pribatuetan.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen osa dezala hiriko goi-tentsioko dorreen inbentarioa.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lursail publikoetan dauden goi-tentsioko dorreak babes ditzala istripuak ekidite aldera.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lursail pribatuetan dauden goi-tentsioko dorreen jabeekin bildu dadila eta azter ditzatela beraiekin dorre hauek babesteko aukera ezberdinak.

Donostian, 2025eko uztailaren 16an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia